

4.- MUSIKA ETA DANTZA

4.1.- DATU BILKETAREN EZAUGARRIAK

4.1.1.- Inkesta

Musika eta Dantzako inkestak bi azpi-proba ditu eta Likert motako 35 itenez osatuta dago. Lehendabizikoak 6 item dauzka eta arloaren kompetentzia orokorrei dagokie. Beste 29 itemak berriz, arloaren kompetentzia espezifikoei dagokie.

Aurkeztutako kompetentzia bakoitzeko itemak erantzun 5 aukera ditu. Erantzuteko, arloan adituak direnei kompetentzia bakoitzaren balorazioa egitea eskatu zaie. Balorazio hori, 1etik 5era doan eskalan egin behar izan dute, aukera bakoitzaren esanahia ondokoa izanik:

- 1 = Hutsala
- 2 = Garrantzi gutxikoa
- 3 = Garrantzi ertaina
- 4 = Garrantzi handikoa
- 5 = Behar beharrezkoa

Inkesten fidagarritasuna Cronbachen Barneko Sendotasun Alfa Koefizientearen bitartez kalkulatu da, ondoko taulan azaltzen diren balioak lortuz. Ikus daitekeenez balio hori eskasa da Kompetentzia Orokorretan eta normala Kompetentzia Espezifikoetan.

	Cronbachen Alfa	Ítem kopurua
Kompetentzia orokorren azpi-proba	0,678	6
Kompetentzia espezifiko azpi-proba	0,908	29

Kompetentzia orokor eta espezifiko bakoitzaren balorazio kuantitatiboaz gain, balorazio kualitatiboa egitea ere eskatu zen adituei, ondoko koadroan agertzen den gidoia jarraituz:

1.-Gizarte Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak
(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

2.-Iruzkinak
(Emandako balorazioari buruzko arrazoen azalpena, proposamenak...)

3.-Inkesta erantzuteko erabilitako bideak
(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

4.1.2.- Partehartzaileak

Jarraian, laginaren aldagaien ezaugarriak azaltzen ditugu, ondoren, aldagai independente gisa, azpitale bakoitzaren konparaketa egiteko erabiliko ditugunak

Ikastetxe mota

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	ikastola	42	34,1	34,1	34,1
	kristau eskola	81	65,9	65,9	100,0
	Denera	123	100,0	100,0	

Lurraldea

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	Araba	13	9,2	9,2	9,2
	Gipuzkoa	54	38,0	38,0	47,2
	Nafarroa	6	4,2	4,2	51,4
	Bizkaia	49	34,5	34,5	85,9
	Iparralde	20	14,1	14,1	100,0
	Denera	142	100,0	100,0	

Hizkuntza eredia

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	A	26	21,1	26,8	26,8
	B	21	17,1	21,6	48,5
	D	50	40,7	51,5	100,0
	Denera	97	78,9	100,0	
Galduak	Sistema	26	21,1		
Denera		123	100,0		

4.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

Item 1.- Musika lanak aztertzea eta musika kodea deszifratzeko moduko ezagutza eta trebetasun musikaleko maila bat lortzea, musika nolabaiteko autonomiaz eta ziurtasunez irakurtzeko eta entzuteko.

Item 2.- Musika hizkuntzaren bereizgarrii buruz hausnartzea, ezagutza hori gure ezaugarrien bitartez nola eskura dezakegun ikasteko eta horren bidez emozio estetikoak eta norberaren integrazioa lortzeko.

Item 3.- Dantzan egin eta dantzak ikusten eta egiten gozatu, musika eta gorputz adierazpena uztartuz; hau da, gorputzaren mugimendua, espazioa eta denbora artikulatuz, norberaren nortasuna eta taldekidetasuna garatzeko.


Item 4.- Dantzaren, ahotsaren eta musika tresnen bitartez komunikatzen ikastea, adierazpen baliabide bakoitzaren arauen arabera, sormenezko pentsaera garatzeko -prozesu kognitiboaren eragilea-, eta komunikazio konpetentziak eskuratzeko -kultur ñabardura asko dituzte eta gizarte trebetasunak garatzeko suspergarri dira-.

Item 5.- Musikaren eta dantzaren lanketak harmonia eta gozamen estetikoak eragiten dituela ulertzea (emozio sortzailea eta norbera hazteko lagungarria da, eta gizartean integratzeko balioak ditu), gizaki garen aldetik prestatzeko eta, hori eginez gero, gizartearen aurrerapenari eta ingurumenaren hobekuntzari laguntzeko.

Item 6.- Entzuten, ikusten edota interpretatzen dugun edozein musika eta dantza adierazpen hobeto ulertzeko, historian zehar ematen eta eman diren musikaren eta dantzaren inguruko gertakari eta autoreei buruzko informazioa, modu kritiko eta aktibo batez, erabili.


4.2.1.- Konpetentzia orokorrak eta ikastetxe mota

ikastetxe mota		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6
ikastola	Batazb.	4,48	4,10	4,25	4,45	4,28	4,33
	N	40	40	40	40	40	40
	Desb. tip.	,679	,841	,840	,677	,751	,656
kristau eskola	Batazb.	4,05	3,83	3,59	3,95	4,02	3,91
	N	81	81	80	81	81	81
	Desb. tip.	,820	,771	,937	,805	,741	,897
Denera	Batazb.	4,19	3,92	3,81	4,12	4,11	4,05
	N	121	121	120	121	121	121
	Desb. tip.	,799	,802	,955	,798	,751	,845




4.2.2.- Konpetentzia orokorrak eta lurraldea

lurraldea		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6
Araba	Batazb.	4,46	4,23	4,15	4,69	4,23	4,15
	N	13	13	13	13	13	13
	Desb. tip.	,660	,725	,801	,630	,927	1,144
Gipuzkoa	Batazb.	4,22	3,89	3,87	4,24	4,22	4,15
	N	54	54	53	54	54	54
	Desb. tip.	,839	,861	,941	,799	,634	,763
Nafarroa	Batazb.	4,67	4,17	3,50	4,17	3,83	4,33
	N	6	6	6	6	6	6
	Desb. tip.	,516	,983	1,049	,753	1,169	,816
Bizkaia	Batazb.	4,02	3,83	3,69	3,81	3,98	3,88
	N	48	48	48	48	48	48
	Desb. tip.	,785	,724	,993	,734	,758	,841
Iparraldea	Batazb.	2,00	3,00	4,00	5,00	3,00	3,00
	N	20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Denera	Batazb.	3,88	3,79	3,84	4,24	3,95	3,90
	N	141	141	140	141	141	141
	Desb. tip.	1,066	,809	,886	,801	,796	,864



4.2.3.- Konpetentzia orokorrak eta hizkuntz eredia

hizkuntz eredia		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6
A	Batazb.	3,92	3,77	3,62	3,92	3,88	3,77
	N	26	26	26	26	26	26
	Desb. tip.	,796	,815	,898	,744	,909	1,107
B	Batazb.	4,19	3,57	3,62	3,62	4,05	4,00
	N	21	21	21	21	21	21
	Desb. tip.	,602	,870	1,024	,805	,669	,837
D	Batazb.	4,29	4,04	4,15	4,45	4,24	4,22
	N	49	49	48	49	49	49
	Desb. tip.	,816	,815	,772	,679	,723	,654
Denera	Batazb.	4,17	3,86	3,88	4,13	4,10	4,05
	N	96	96	95	96	96	96
	Desb. tip.	,777	,841	,898	,798	,774	,851



4.3.- ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Item 1.- Musika lana entzutean, soinudun mezuaren funtsezko ideiak identifikatu, entzunaldiaren aurretik aditutako jarraibideak aplikatzen saiatuz.

Item 2.- Konposizioaren estiloa eta garaia hauteman, harmonia estiloari eta instrumentuen erabilerari erreparatuz.

Item 3.- Soinu iturria identifikatu, era askotakoa eta konplexua izan daitekeela kontuan hartuz, eta mailari egokitutako soinu mapa bat egin.

Item 4.- Musika konposizioa jarrera kritikoz entzun, eta horren forma eta edukia aztertu.

Item 5.- Musika lanaren zentzua interpretatu, eta horren alderdi estetikoari eta interpretazio ezaugarriari buruzko iritzia eman.

Item 6.- Musika gozatzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko erabili, musikaren kultur balioa kontuan hartuz.

Item 7.- Egileari, lanari eta estiloari dagozkion musikaren historiako garai bakoitzaren funtsezko erreferenteak ezagutu, entzunaldien eta ariketa bokalen eta instrumentalen bidez.

Item 8.- Musika hizkuntzaren oinarriko ezaugarriak ezagutu eta horren aplikazioa kantuan eta lan instrumentaletan.

Item 9.- Mailari egokitutako partiturak era autonomoan irakurri, eta ahotsaren eta instrumentu baten bidez interpretatu.

Item 10.- Musika ideiak agertzeko -norberak sortutakoak nahiz beste egile batzuenak beharrezkoak diren musika hizkuntzako ezaguerak erabili.

Item 11.- Musika irakurketa musika ezagutzeko eta jakituria handitzeko erabili, bai nork bere burua garatzeko, bai talde lan interesgarri eta aberatsa egiteko.

Item 12.- Musika partitura arintasunez eta bizitasunez deszifratu, partitura bakoitza pieza estetiko interesgarria dela eta musika mezu bat duela erakutsiz.

Item 13.- Ikasleak duen musika ezagutzaren mailari egokitutako musika lan koherenteak eta aberatsak interpretatu.

Item 14.- Partitura bat interpretatu oinarri estetikoari jarraituz eta teknika egokia erabiliz.

Item 15.- Kanta baten estiloa eta izaera hauteman eta interpretatu, entzuleak musika bizipena bereganatzea.

Item 16.- Ahotsaren edo instrumentuen bidez interpretatu behar den lan baten garapen dinamikoa planifikatu, zer nabardura erabiliko diren erabakiz, gustu eta koherentzia musikalaren arabera.

Item 17.- Musika lanari buruzko iritzia arrazoitu, ideiak alderatuz eta ideiek dakarten aurrerabideari erreparatzen saiatuz.

Item 18.- Kanta bat bakarka eta taldean interpretatu, modalitate bakoitzak behar dituen interpretazio ezaugarrietara moldatuz.

Item 19.- Kantua edo taldeko lan instrumentala norberaren gozamenerako eta bizikidetzara balioak sustatzeko erabili.

Item 20.- Era askotako interpretazio materiala aukeratu, gehiegizko espezializazioa baztertuz, beste kultur errealitate batzuk ezagutzeko.

Item 21.- Musika jardueren arteko itxaronaldietan isilik egon, musika lantzeko behar den kontzentrazioarako itxaronaldiak beharrezkoak baitira.

Item 22.- Dantzaren osagaiak (musika, mugimendua eta adierazpena) ezagutu eta komunikaziorako erabili.

Item 23.- Dantzarako behar diren baliabideak (gorputza, espazioa eta denbora) eta horien artikulaziorako mekanismoak ezagutu.

Item 24.- Euskal Herriko dantza ludikoak ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.

Item 25.- Euskal Herriko dantza formalen artean dauden mota nagusiak eta horien hurbileko adibideak ezagutu.

Item 26.- Nazioarteko dantza ludiko batzuk ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.

Item 27.- Dantza estilo desberdinak (klasikoa, modernoa, garaikidea, tradizionala, areto dantzak...) identifikatu eta dituzten ezaugarriak ezagutu.


Item 28.- Dantza ikuskizunak: nazioarteko balet ezagun batzuk eta euskal taldeen zenbait lan garrantzitsu ezagutu.

Item 29.- Musika eta Dantza Arloaren balorazioa oro har

4.3.1.- Konpetentzia espezifikokoak eta ikastetxe mota

ikastetxe mota		kes1	kes2	kes3	kes4	kes5	kes6	kes7	kes8	kes9	kes10	kes11	kes12	kes13	kes14	kes15
ikastola	Batazb.	4,29	3,83	4,24	4,15	3,97	4,54	4,24	4,48		4,22	4,13	4,05	4,33	4,07	4,00
	N	41	40	41	40	39	41	41	40		41	39	39	40	41	41
	Desb. tip.	,716	,747	,799	,802	,843	,674	,767	,716		,852	1,005	,857	,888	,877	,866
kristau eskola	Batazb.	3,93	3,56	3,70	3,89	3,71	4,64	4,10	4,32	4,16	3,75	3,73	3,73	3,42	3,93	3,58
	N	81	81	81	81	80	81	80	81	45	81	81	81	81	81	81
	Desb. tip.	,738	,851	,887	,742	,874	,619	,722	,739	,852	,969	,922	,866	1,059	,905	,864
Denera	Batazb.	4,05	3,64	3,89	3,98	3,80	4,61	4,15	4,37	4,16	3,91	3,86	3,83	3,72	3,98	3,72
	N	122	121	122	121	119	122	121	121	45	122	120	120	121	122	122
	Desb. tip.	,748	,825	,893	,769	,869	,637	,738	,732	,852	,953	,964	,873	1,090	,895	,884


ikastetxe mota		kes16	kes17	kes18	kes19	kes20	kes21	kes22	kes23	kes24	kes25	kes26	kes27	kes28	kes29
ikastola	Batazb.	3,90	4,00	4,29	4,59	4,29	4,49	4,22	4,22	4,26	4,13	3,79	3,69	3,74	4,35
	N	40	39	41	41	41	41	41	41	39	39	39	39	39	37
	Desb. tip.	,871	,858	,844	,631	,844	,746	,822	,791	,850	,894	,923	,922	1,019	,824
kristau eskola	Batazb.	3,37	3,62	4,04	4,35	4,00	4,62	3,70	3,58	3,76	3,71	3,36	3,61	3,30	3,95
	N	81	79	80	81	80	81	80	80	80	80	80	80	80	76
	Desb. tip.	,914	,938	,920	,809	,796	,717	,933	,883	,931	,783	,846	,974	,770	,764
Denera	Batazb.	3,55	3,75	4,12	4,43	4,10	4,57	3,88	3,79	3,92	3,85	3,50	3,64	3,45	4,08
	N	121	118	121	122	121	122	121	121	119	119	119	119	119	113
	Desb. tip.	,931	,926	,900	,760	,821	,726	,927	,903	,931	,840	,891	,954	,880	,803



4.3.2.- Konpetentzia espezifikokoak eta lurraldea

lurraldea		kes1	kes2	kes3	kes4	kes5	kes6	kes7	kes8	kes9	kes10	kes11	kes12	kes13	kes14	kes15
Araba	Batazb.	3,92	3,62	3,85	4,00	3,62	4,77	4,54	4,46	4,75	4,00	4,23	4,23	3,62	4,23	3,77
	N	13	13	13	13	13	13	13	13	8	13	13	13	13	13	13
	Desb. tip.	,862	,870	1,281	,913	,870	,599	,519	,877	,463	,913	,927	,832	1,325	1,166	1,013
Gipuzkoa	Batazb.	4,20	3,74	3,94	4,00	3,88	4,65	4,20	4,47	4,22	3,96	3,98	3,85	4,06	4,19	3,87
	N	54	54	54	54	51	54	54	53	9	54	52	54	53	54	54
	Desb. tip.	,762	,805	,856	,801	,909	,588	,711	,639	,667	1,045	,960	,833	1,064	,803	,891
Nafarroa	Batazb.	4,17	3,67	4,33	4,00	3,83	4,17	4,00	4,33		4,67	4,33	4,17	4,17	3,83	3,83
	N	6	6	6	6	6	6	6	6		6	6	6	6	6	6
	Desb. tip.	,753	,516	,816	,894	1,169	,983	,894	,816		,516	,516	,753	1,169	,753	,753
Bizkaia	Batazb.	3,90	3,54	3,78	3,94	3,76	4,57	4,00	4,24	3,96	3,73	3,57	3,66	3,33	3,69	3,53
	N	49	48	49	48	49	49	48	49	28	49	49	47	49	49	49
	Desb. tip.	,684	,874	,823	,697	,804	,645	,772	,778	,922	,861	,957	,915	,922	,871	,844
Iparraldea	Batazb.	3,00	3,00	4,00	3,00	2,00	5,00	4,00	4,00		3,00	2,00	2,00	5,00	2,00	3,00
	N	20	20	20	20	20	20	20	20		20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000		,000	,000	,000	,000	,000	,000
Denera	Batazb.	3,90	3,55	3,90	3,84	3,54	4,66	4,13	4,32	4,16	3,78	3,59	3,57	3,90	3,70	3,62
	N	142	141	142	141	139	142	141	141	45	142	140	140	141	142	142
	Desb. tip.	,784	,797	,828	,789	1,023	,606	,685	,690	,852	,939	1,105	1,033	1,104	1,078	,857


Iurraldea		kes16	kes17	kes18	kes19	kes20	kes21	kes22	kes23	kes24	kes25	kes26	kes27	kes28	kes29
Araba	Batazb.	3,69	3,54	4,46	4,23	4,15	4,69	4,15	4,00	3,92	3,92	3,85	3,92	3,62	4,00
	N	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13	13
	Desb. tip.	,751	1,266	,877	,832	,899	1,109	,987	,913	1,115	1,188	,899	,954	,961	1,080
Gipuzkoa	Batazb.	3,63	3,80	4,21	4,56	4,25	4,61	3,92	3,77	3,98	3,96	3,48	3,48	3,35	4,12
	N	54	51	53	54	53	54	53	53	52	52	52	52	52	49
	Desb. tip.	,958	,960	,769	,634	,705	,627	,917	,974	,960	,740	,896	,980	,837	,832
Nafarroa	Batazb.	3,60	3,83	4,00	4,67	4,17	4,33	3,83	3,67	3,83	3,33	3,33	3,17	3,33	3,83
	N	5	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6
	Desb. tip.	1,140	,983	1,265	,516	,983	,816	1,329	1,211	1,169	1,366	1,366	1,169	1,366	,983
Bizkaia	Batazb.	3,41	3,73	3,96	4,31	3,92	4,53	3,76	3,78	3,88	3,77	3,46	3,79	3,52	4,09
	N	49	48	49	49	49	49	49	49	48	48	48	48	48	45
	Desb. tip.	,934	,792	,978	,871	,886	,710	,879	,798	,841	,751	,824	,874	,850	,668
Iparraldea	Batazb.	3,00	3,00	4,00		4,00	5,00	4,00	5,00	5,00	4,00	3,00	3,00	4,00	5,00
	N	20	20	20		20	20	20	20	20	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,000	,000	,000		,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000	,000
Denera	Batazb.	3,47	3,64	4,11	4,43	4,09	4,63	3,89	3,96	4,08	3,87	3,43	3,55	3,53	4,22
	N	141	138	141	122	141	142	141	141	139	139	139	139	139	133
	Desb. tip.	,883	,896	,834	,760	,761	,689	,859	,937	,941	,779	,843	,911	,837	,810



4.3.3.- Konpetentzia espezifikoak eta hizkuntz eredia

hizkuntz eredia		kes1	kes2	kes3	kes4	kes5	kes6	kes7	kes8	kes9	kes10	kes11	kes12	kes13	kes14	kes15
A	Batazb.	3,69	3,46	3,38	3,81	3,65	4,38	3,92	4,04	4,00	3,46	3,50	3,58	2,92	3,65	3,23
	N	26	26	26	26	26	26	26	26	23	26	26	26	26	26	26
	Desb. tip.	,788	,761	,898	,694	,797	,804	,796	,871	,953	,948	1,030	,945	,935	1,056	,908
B	Batazb.	4,00	3,57	3,62	3,90	3,67	4,71	4,40	4,14	4,38	3,95	3,76	3,67	3,71	3,95	3,48
	N	21	21	21	21	21	21	20	21	8	21	21	21	21	21	21
	Desb. tip.	,775	1,028	,805	,700	,913	,463	,681	,655	,518	,921	,944	,796	,956	,865	,873
D	Batazb.	4,24	3,76	4,20	4,14	3,91	4,62	4,14	4,51	4,50	4,12	4,02	3,96	4,16	4,06	3,96
	N	50	49	50	49	47	50	50	49	2	50	49	48	49	50	50
	Desb. tip.	,687	,804	,857	,764	,855	,567	,756	,681	,707	,895	1,010	,849	1,028	,867	,807
Denera	Batazb.	4,04	3,64	3,86	4,00	3,79	4,58	4,14	4,30	4,12	3,91	3,82	3,79	3,73	3,93	3,66
	N	97	96	97	96	94	97	96	96	33	97	96	95	96	97	97
	Desb. tip.	,763	,848	,924	,740	,853	,626	,763	,756	,857	,947	1,016	,874	1,110	,927	,900

hizkuntz eredia		kes16	kes17	kes18	kes19	kes20	kes21	kes22	kes23	kes24	kes25	kes26	kes27	kes28	kes29
A	Batazb.	3,69	3,46	3,38	3,81	3,65	4,38	3,92	4,04	4,00	3,46	3,50	3,58	2,92	3,65
	N	26	26	26	26	26	26	26	26	23	26	26	26	26	26
	Desb. tip.	,788	,761	,898	,694	,797	,804	,796	,871	,953	,948	1,030	,945	,935	1,056
B	Batazb.	4,00	3,57	3,62	3,90	3,67	4,71	4,40	4,14	4,38	3,95	3,76	3,67	3,71	3,95
	N	21	21	21	21	21	21	20	21	8	21	21	21	21	21
	Desb. tip.	,775	1,028	,805	,700	,913	,463	,681	,655	,518	,921	,944	,796	,956	,865
D	Batazb.	4,24	3,76	4,20	4,14	3,91	4,62	4,14	4,51	4,50	4,12	4,02	3,96	4,16	4,06
	N	50	49	50	49	47	50	50	49	2	50	49	48	49	50
	Desb. tip.	,687	,804	,857	,764	,855	,567	,756	,681	,707	,895	1,010	,849	1,028	,867
Denera	Batazb.	4,04	3,64	3,86	4,00	3,79	4,58	4,14	4,30	4,12	3,91	3,82	3,79	3,73	3,93
	N	97	96	97	96	94	97	96	96	33	97	96	95	96	97
	Desb. tip.	,763	,848	,924	,740	,853	,626	,763	,756	,857	,947	1,016	,874	1,110	,927



4.4.- EMAITZEN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

4.4.1.- Emaizten laburpena

Konpetentzia orokorrak

Musika eta Dantza arloan planteatutako 6 konpetentzia orokorretatik, 4 oso ondo onartuak izan dira kontsultatutako irakasleengandik, 4 baino altuagoak diren balioak lortuz (balioak 1etik 5era izan daitezkeela kontutan hartu behar da). Salbuespena 2 (3,91ko batezbestekoa) eta 3 (3,81eko batezbestekoa) konpetentzia orokorretan da. Beraz, konpetentzia hauek berrikusi beharko lirateke, alegia, barnean sartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko posibilitateak aztertu beharko lirateke.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntz eredua), konpetentzia orokorren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia orokorre emandako balorazioetan.
- Hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxeen irakasleek egindako balorazioei begiratu gero, aurretiko tauletan ikus daitekeen moduan, 3 eta 4 konpetentzien kasuan diferentzi adierazgarriak ematen dira. Konpetentzia horiek balorazio altuago jaso dute D ereduari diharduten irakasleen eskutik; A eta B ereduari 4 baino balorazio txikiago lortu dute.
- Ikastetxe-motaren arabera, konpetentzietan egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira orokorrean. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala 1, 3, 4 eta 6 konpetentziak ikastoletako irakasleengandik hobeto baloratuak izan dira kristau eskoletako irakasleengandik baino. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4 baino altuagoak direla azpimarratu behar da, 3 konpetentzian izan ezik, konpetentzia horiek onartzen direla.

Konpetentzia Espezifikokoak

Musika eta Dantza arloko 29 konpetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean gaizki onartuak izan direla erakusten dute, zeren eta kasu gehienetan batez besteko balioak 4 baino baxuagoak dira. Horregatik, berrikuspena behar dute. Bakarrik 1, 6, 7, 8, 9, 18, 19, 20, 21 eta 29 kasuetan lortutako batez besteko balioak 4 baino altuagoak izan dira, eta honek irakasleen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntza eredua), konpetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan. Dena den, 11 konpetentzian Nafarroako irakasleek balorazio altuena eman dutenak izan dira; atzetik Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoek doaz; azken bi hauetan balorazioa 4 baino txikiagoa izan da. Era berean, 13 konpetentzian ordena hau azaldu da: Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia; eta azken bi hauetan balorazioa 4 baino txikiagoa izan da. Azkenik, 14 konpetentzian Arabakoak izan dira balorazio handiena eman dutenak eta ondoren Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia (azken bi hauetan balorazioa 4 baino txikiagoa).
- Ikastetxe-motaren arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasuen erdian. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala 1, 3, 10, 13, 15, 16, 17, 22, 23, 24, 25, 26, 28 eta 29 konpetentzia espezifikoetan ikastoletako irakasleek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako irakasleek baino. Gainera, azken konpetentzia hauetan, balorazioa 4 baino baxuagoa izan da gehienbat; beraz, konpetentzia hauek ez dira onartuak izan.
- Hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxetako irakasleek egindako balorazioei begiratu gero, antzekoak direla esan genezake. Dena den, 1, 3, 8, 10, 13, 15, 17, 19, 22, 23, 24 eta 29 konpetentzia espezifikoen kasuan, diferentzia adierazgarriak ematen dira. Kasu hauetan guztietan, D ereduari irakasleek konpetentziak hobeto baloratu dituzte, B eta A ondoren doazela. Gainera, ea aipatutako azken konpetentzia guzti hauetan A ereduari irakasleek 4 baino balorazio txikiagoa eman dute, B ereduari gehiago bezala.

4.4.2.- Hobekuntza proposamenak

Orokorrean, arloaren eta proposatutako konpetentzien garrantzia eta irizpideen egokitasuna azpimarratzen bada ere (8-1, 32-1, 158-3, 206-3, 224) eta edertasunaren kontzeptuaren berreskurapena (206-3), egungo errealitatean ez zaiola behar besteko garrantziarik eta tarterik ematen (2-1, 70-3, 115-3) agertzen zaigu nagusiki; alegia, Hezkuntza Sistema ez dagoela heziketa artistikorako prestaturik (217). Proposatzen direnez gainera, musika lanak eta dantza ikuskizunak zuzenean entzun eta ikustea iradokitzen da jarduera osagarri gisara (8-1) eta hauek, ikasmaita guztietan landu beharko liratekeela (19-1, 100-3, 146-3). Honetaz guztiaz gainera, nahiz eta orokorrean eduki asko eta jasoak direla (55-1, 100-3, 153-3) eta irakasleen prestakuntzaren beharra legokela aipatuta ere (206-3, 217), bereziki dantza eta musika-tresnetan, Euskal Herrian ditugun musika tresnetan eta erritmoan trebatzea proposatzen dute

zenbaitzuk (2-1, 16-1, 88-3), bai eta garrantzia, batez ere kantatzeari, dantzatzeari eta instrumentuak jotzeari ematea (58-1, 60-1, 129-3, 130-3, 217). Hala ere, badago dantzatzen jakitea eta ezaugarriak bereiztea gehiegizkoa iruditzen zaionik (26-1, 95-3, 100-3, 129-3, 153-3). Gure ustez, honako hau, orain arte ikastetxe askotan landu ez izanaren ondorioa da.

Hobekuntza proposamenetan, honako gai hauek ere txertatzea iradoki dituzte galdeketak erantzun dituztenak eta adituak:

- Bertsolaritza (8-1, 6-1)
- XXI. mendeko musika lanak (8-1, 217)
- Euskal musikaren historia eta mugimenduak ezagutu (musikariak, taldeak, garaiak, korronteak,...), ulertu eta gozatu (16-1, 45-1)
- Teknologia berriak (irratsaioa, grabaketa, softwarea, sekuentziadoreak ...). (1-1, 2-1, 88-3, 85-3, 105-3, 129-3, 130-3)
- Inprobisazioa (214-1)
- Gorputzaren jarrera landu (105-3)
- Prozedurak autonomia eta esperientzian oinarritu eta interpretazioa landu gaietara sarrera emateko (1-1, 55-1, 85-3, 214-3)

Baliabideei dagokienean, hauen premia nagusitzen da, bai ikasmaterialak direla, zein lanketarako denbora, espazioa, teknologia, tresnak, prestakuntza, eta bereziki, ikasle kopurua egokitzea (1-1, 5-1, 8-1, 15-1, 23-1, 24-1, 25-3, 29, 41-1, 55-1, 63-3, 75-3, 85-3, 148-1, 55-1, 62-3, 64-3, 83-3, 90-3, 100-3, 104-3, 107-3, 115-3, 120-3, 126-3, 128-3, 129-3, 131-3, 135-3, 136-3, 145-3, 156-3, 158-3, 163-3, 164-3)

Arlo honi ekarpenak egiteko bereziki egunerokotasunean eta esperientzian oinarritu dira erantzuleak (24-1, 120-3) bai eta beste herrialdeetako adibideetan ere (217)